

../2022 FORU DEKRETUA, ..aren ..koa, Nafarroako Foru Komunitateko Batxilergoaren etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa aldaketa garrantzitsuak egiten ditu aurreko arauaren testuan; legearen zioen azalpenean adierazten den moduan, aldaketa horietako asko jatorrizko testuan jasotako neurriak berrikusteko beharrari zor zaizkio, hezkuntza sistema XXI. mendeko erronka eta desfioei egokitzearen, Europar Batasunak eta UNESCOk 2020-2030 hamarkadarako zehaztutako helburuekin bat.

Ikuspegi horri jarraituz, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren testu berriak, atariko tituluan, hezkuntzaren printzipio eta helburuen artean aipatzen du, besteak beste, haurren eskubideak benetan betetzekoa, Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritakoaren arabera, hezkuntza inklusioa eta Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioak aplikatzea.

Horrekin batera, lehenengo eta behin, legeak curriculumaren definizio berri bat ematen du, hura osatzen duten elementuak aipatzen ditu eta adierazten du curriculuma taxutu behar dela ikasleen hezkuntza garapena erraztera bideratuta egin behar dela kontuan hartuz, eta bermatu behar duela haien prestakuntza integrala; orobat, lagundu behar du ikasleen nortasuna osotara garatzen eta prestatzen giza eskubideak guztiz baliatzeko, herritar aktibo eta demokratiko izateko egungo gizartean, eskola uztea ekarri edo hezkuntzarako eskubideaz baliatzeko inolako oztoporik eragin gabe. Ikuspegi horrekin bat, legeak eusten dio

jatorrizko testuan jasota zegoen ikuspuntuari, kompetentzietan oinarritutakoari, eta azpimarratzen du aipatutako prestakuntza integralak kompetentzien garapena izan behar duela jomuga nahitaez.

Testu berriak aldatu egiten du gutxieneko irakaskuntzen oinarrizko edukiei dagozkien eskumenen lehengo banaketa, Estatuaren eta autonomia erkidegoen artekoa. Horrela, Gobernuari dagokio, autonomia erkidegoei kontsulta egin ondoren, curriculumaren oinarrizko alderdiak finkatzea, gutxieneko irakaskuntzak osatzen dituztenak, helburuen, kompetentzien, edukien eta ebaluazio irizpideen arloan.

Hezkuntza administrazioak, berriz, beren lurralde esparrurako curriculumak ezartzeaz arduratuko dira, horren barnean sartuta daudela arestian aipatutako oinarrizko alderdiak. Azkenik, ikastetxeek beraiek garatu eta osatu beharko dute, hala dagokionean, etapa eta zikloetako curriculumak, beren autonomiaz baliatuz, legen berean jasotzen den bezala.

Batxilergoko irakaskuntzen antolaketari dagokionez, legearen testu berriak lau modalitate ezartzen ditu: Zientziak eta Teknologia, Giza eta Gizarte Zientziak, Arteak eta Orokorra; horrekin batera, modalitateetako ikasgai komunak definitzen ditu. Gobernuak, autonomia erkidegoei kontsulta egin ondoren, aipatutako modalitateen egitura eta ikasgai espezifikoak ezarri behar ditu, bai eta ikasleek ikasi beharreko ikasgai kopurua ere. Ezartzen da, halaber, aukerako ikasgaien eskaintza, eta hezkuntza administrazioei dagokiela haien antolamendua.

Bukatzeko, irakaskuntzen ebaluazioa, mailaz igotzea, titulazioa eta unibertsitateko ikasketetan sartzeko sistema arautu behar duten funtsezko printzipioak ezartzen dira.

Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzak eta haien antolamendua ezartzen dituen apirilaren 5eko 243/2022 Errege Dekretua argitaratu ondoren, Nafarroako Gobernuari dagokio, lege organikoak berak emandako erantzukizuna bere gain hartuta, Nafarroako Foru Komunitateko Batxilergoaren etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzea foru dekretu honen bidez.

Foru dekretu honek ezartzen ditu etaparen antolaketa, helburuak, xedeak, printzipio orokorrak eta printzipio pedagogikoak. Funtsezko konpetentzien bereganatze-mailaren deskriptore operatiboek ematen dute etaparen helburu, printzipio eta xedeen zehaztapena. Beren autonomia erabiliz, ikastetxeek garatuko dute foru dekretu honetan ezarritako curriculuma eta, hala badagokio, osatuko ere.

Batxilergoa bukatzean izan beharreko funtsezko konpetentzien bereganatze-maila, definizioz, oinarrizko irakaskuntzaren bukaeran ikasleek duten irteera-profilaren jarraipena da. Beste alde batetik, ikasgaietako bakoitzarentzat ezartzen dira etaparako aurreikusitako konpetentzia espezifikoak, bai eta ikasmaila bakoitzerako ebaluazio irizpideak eta edukiak ere, oinarrizko jakintza gisa emanak.

Irakasleei beren lan propioa errazteko, ikaskuntza egoeraren definizio bat proposatzen da eta haren diseinurako orientabide batzuk ematen dira.

Era berean, foru dekretu honetan etaparen antolamenduaren funtsezko alderdi batzuei buruzko beste zenbait xedapen jasotzen dira, hala nola tutoretza, orientazioa, banakako desberdintasunekiko arreta, ebaluazioa eta mailaz igotzeko eta titulaziorako irizpideak.

Horiek horrela, Nafarroako Eskola Kontseiluak txostena egin ondoren, Hezkuntzako kontseilariak proposaturik eta

Nafarroako Gobernuak 2022ko xxxxaren xxan egindako bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

**DEKRETATZEN DUT:**

**1. artikulua.** *Xedea eta aplikazio-eremua.*

Foru dekretu honen xedea da Batxilergoaren etapako curriculuma ezartzea, eta aplikatuko da Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan, pribatuetan eta pribatu itunduetan, Hezkuntza Departamentuak behar bezala baimenduta Batxilergoko irakaskuntzak ematen dituztenetan.

**2. artikulua.** *Curriculumua.*

1. Foru dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, curriculuma da hezkuntza jarduna arautzen duten helburuen, konpetentzien (funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikoak), oinarrizko jakintza gisa adierazitako edukien, metodo pedagogikoen eta ebaluazio irizpideen multzoa.

2. Ikastetxeek, beren autonomia erabiliz, foru dekretu honetan ezarritako Batxilergoko curriculuma garatuko dute, bai eta, hala badagokio, osatuko ere, eta zehaztapen hori beren hezkuntza proiektuaren parte izanen da; zehaztapen horrek bultzatu eta garatuko ditu herritar aktibo izatera bideratuta eta konpetentzietan oinarrituta dagoen ikaskuntzari dagozkion printzipioak, helburuak eta metodologia.

### **3. artikulua. Definizioak.**

Foru dekretu honen ondorioetarako, honela ulertuko dira hitz hauek:

a) Helburuak: ikasleek etapa amaitzean erdiestea espero diren lorpenak, funtsezko konpetentziak bereganatzearekin lotuta daudenak.

b) Funtsezko konpetentziak: ezinbestekotzat jotzen diren jardunak, ikasleek beren prestakuntza ibilbidean arrakasta bermatuta aurrera egin ahal izateko eta erronka nagusiei, globalei nahiz lokalei, aurre egiteko. Europar Batasuneko Kontseiluak 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioan, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziei buruzkoan, ezarritako funtsezko konpetentziak Espainiako hezkuntza sistemara egokitzearen emaitza dira.

c) Funtsezko konpetentzien deskriptore operatiboak: erreferentzia esparrua, konpetentzia espezifikoak eta funtsezko konpetentziak lotzen dituen eta bide ematen duena konpetentzia espezifikoak ebaluatuta funtsezko konpetentzien eskuratzeko-maila zehazteko.

d) Konpetentzia espezifikoak: zenbait jarduera edo egoeratan, zeinetan lanketarako beharrezkoak baitira arlo bakoitzaren oinarritzko jakintzak, ikasleek bete behar dituzten jardunak. Konpetentzia espezifikoak lotura elementu bat dira, funtsezko konpetentzien eta ikasgaietako oinarritzko jakintza eta ebaluazio irizpideen artekoa.

e) Oinarritzko jakintzak: ikasgai bati dagozkion edukiak osatzen dituzten ezagutzak, abileziak eta jarrerak, konpetentzia espezifikoak eskuratzeko ikasi beharrekoak.

f) Metodo pedagogikoak: irakasleek, kontzienteki eta gogoeta baten ondorioz, antolatu eta planifikatzen dituzten

estrategiak, prozedurak, teknikak eta ekintzak; elkarren artean koordinatuta, helburu dute ikasleen ikaskuntza bideratzea helburuak eta funtsezko kompetentziak nahiz kompetentzia espezifikoak lortzera.

g) Ebaluazio irizpideak: erreferenteak dira, eta egoera edo jarduera batzuetan ikasleengandik espero diren jardun-mailak adierazten dituzte; egoera edo jarduera horiek lotuta daude, ikaskuntza prozesuaren une jakin batean, ikasgai bakoitzaren kompetentzia espezifikoekin.

h) Ikaskuntza egoerak: ikasleek funtsezko kompetentziekin eta kompetentzia espezifikoekin lotutako jarduerak gauzatzea dakarten egoerak eta jarduerak, kompetentzia horiek eskuratu eta garatzen laguntzen dutenak.

**4. artikulua.** *Batxilergoa hezkuntza sistemaren esparruan.*

1. Batxilergoak derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntza osatzen duten irakaskuntzetako bat da, beste hauekin batera: erdi mailako Lanbide Heziketa, Arteetako Lanbide Irakaskuntzak, bai Musika eta Dantzakoak bai erdi mailako Arte Plastikoak eta Diseinukoak, eta erdi mailako Kirol Irakaskuntzak.

2. Bi ikasmaita ditu, zenbait modalitatetan eta, hala dagokionean, bidetan garatzen da eta ikasgai komunak, modalitateko ikasgaiak eta aukerako ikasgaiak arabera antolatuta dago.

**5. artikulua.** *Xedeak.*

Batxilergoaren xedea da ikasleei prestakuntza, adimen eta giza heldutasuna, ezagutzak, eta trebetasunak eta jarrerak ematea, eginkizun sozialak garatzeko eta bizitza aktiboan erantzukizunez eta behar bezalako gaitasunarekin

sartzeko aukera izan dezaten. Halaber, etapa honek ahalbidetu behar die ikasleei prestakuntzaren eta lanbidearen arloan etorkizunean ezinbestekoak izanen zaizkien konpetentziak eskuratu eta lortzea, eta goi mailako hezkuntzarako gaitasuna izatea.

**6. artikulua.** *Printzipio orokorrak.*

1. Batxilergoko ikasketak egiten ahalko dituzte titulu hauetako bat dutenek:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua.
- Lanbide Heziketako teknikari titulua edo goi mailako teknikari titulua.
- Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikari titulua edo goi mailako teknikari titulua.
- Kirol teknikari titulua edo goi mailako kirol teknikari titulua.

2. Ikasleek lau urte eman ditzakete Batxilergoa ikasten, jarraian izan edo ez.

3. Hezkuntza Departamentuak Batxilergoko ikaspostu publikoen eskaintzaren emendatze progresiboa sustatuko du, modalitate eta bide guztietan.

**7. artikulua.** *Printzipio pedagogikoak.*

1. Batxilergoan, hezkuntza jardueren bidez sustatuko da ikasleen gaitasuna bakarrik ikasteko, taldean lan egiteko eta ikerketa metodo egokiak aplikatzeko. Arreta berezia eskainiko zaio ikasleen hezkuntza eta lanbide orientazioari, genero-ikuspegia txertatuta.

2. Hezkuntza Departamentuak sustatuko ditu behar diren neurriak ikasgai guztietan susper daitezen irakurtzeko

interesa eta ohitura, bai eta jendaurrean zuzen hitz egiteko gaitasuna ere.

3. Batxilergoko ikasketen antolaketan arreta berezia emanen zaie hezkuntza laguntzako berariazko premia duten ikasleei. Horretarako, antolaketan eta metodologian alternatibak ezarriko dira, bai eta aniztasunari erantzuteko neurriak ere, ikasle horiei curriculumaren sarbidea errazteko.

4. Atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan, ahozko ulermena, adierazpena eta interakzioa lehenetsiko dira. Gaztelania edo, hala badagokio, euskara hizkuntza horien ikaskuntza prozesuan laguntzeko baina ez da erabiliko.

#### **8. artikulua.** *Etaparen helburuak.*

Batxilergoak lagunduko du ikasleengan honako xede hauetarako gaitasunak garatzen:

a) Herritartasun demokratikoaz baliatzea, ikuspegi globaletik, eta kontzientzia zibiko arduratsua eskuratzea, Espainiako Konstituzioaren balioetan eta giza eskubideetan oinarrituta, gizarte justu eta bidezko baten eraikuntzan erantzunkidetasuna sustatzeko.

b) Heldutasun pertsonala, afektibo-sexuala eta soziala sendotzea, errespetuz, arduraz eta autonomiaz jokatzeko eta espiritu kritikoa garatzeko.

c) Gatazka pertsonalak, familiakoak eta sozialak eta egon daitezkeen indarkeria egoerak aurreikustea, detektatzea eta bakebidez konpontzea.

d) Emakumeen eta gizonen eskubideen eta aukeren berdintasun eragingarria sustatzea, dauden desberdintasunak aztertzea eta kritikoki baloratzea, bai eta emakumeek historian izan duten zeregina aitortzea eta irakastea ere,



eta sustatzea benetako berdintasuna eta diskriminaziorik eza, jaiotza, sexua, arraza- edo etnia-jatorria, desgaitasuna, adina, gaixotasuna, erlijioa edo sinesmenak, sexu-orientazioa edo genero-identitatea edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.

e) Irakurtzeko, ikasteko eta diziplina izateko ohiturak sendotzea, ikaskuntza ongi aprobetxatzeko beharrezkoak baitira, eta garapen pertsonalerako bide.

f) Gaztelania eta, hala dagokionean, euskara menderatzea bai ahozko bai idatzizko adierazpenean.

g) Jariotasunez eta zuzentasunez hitz egitea atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan.

h) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak fidagarritasunez eta erantzukizunez erabiltzea.

i) Mundu garaikidearen errealitateak, aurrekari historikoak eta bilakaeraren faktore nagusiak ezagutzea eta kritikoki baloratzea, eta haien ingurune sozialaren garapenean eta hobekuntzan elkartasunez parte hartzea.

j) Oinarrizko ezagutza zientifiko eta teknologikoak eskuratzea eta hautatutako modalitateari eta, hala badagokio, bideari dagozkion oinarrizko trebetasunak menderatzea.

k) Ikerketaren eta metodo zientifikoen funtsezko elementuak eta prozedurak ulertzea.

l) Zientziak eta teknologiak bizi-baldintzak aldatzeko egiten duten ekarpena ezagutzea eta kritikoki baloratzea, eta ingurumenarekiko sentikortasuna eta errespetua sendotzea.

m) Espiritu ekintzailea sendotzea, zenbait jarrera landuz: sormena, malgutasuna, ekimena, talde-lana, norik bere buruarengan konfiantza izatea eta zentzu kritikoa.

n) Artearekiko eta literaturarekiko sentsibiltatea garatzea, baita irizpide estetikoak ere, prestakuntza eta aberastasun kulturalerako bide diren aldetik.

o) Gorputz hezkuntza eta kirola erabiltzea garapen pertsonala eta soziala bultzatzeko. Kirol jardueren eta jarduera fisikoen ohiturak sendotzea, ongizate fisikoa eta mentala bultzatzeko, bai eta garapen pertsonal eta sozialerako bitarteko gisa ere.

p) Errespetu eta prebentzio jarrerak sendotzea mugikortasun seguru eta osasungarriaren esparruan.

q) Jarrera arduratsua eta konprometitua sustatzea klima-aldaketaren aurkako borrokan eta garapen jasangarriaren defentsan.

r) Nafarroako ondare natural, historiko, artistiko eta kulturala ezagutu, baloratu eta errespetatzea, eta orobat hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasuna ere.

## **9. artikulua.** *Etaparen antolaketa orokorra.*

1. Ikastetxeek eskain ditzaketan Batxilergoko modalitateak hauek dira:

- a) Arteak.
- b) Zientziak eta Teknologia.
- c) Orokorra.
- d) Giza eta Gizarte Zientziak.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren modalitateek egitura bakarra izanen dute, Arteen modalitateak izan ezik, bi bidetan antolatuko baita: bata Arte Plastikoen, Irudiaren

eta Diseinuaren ingurukoa eta bestea Musika eta Arte Eszenikoen ingurukoa.

3. Etaparen antolaketa orokorra ikasgai komunetan, modalitateko ikasgaietan eta aukerako ikasgaietan antolatuta egonen da.

4. Ikasleek beti aukeratzen ahalko dute ikasten duten modalitateko ikasgai espezifiko guztien artean. Horretarako, ikastetxeek eskaintzen dituzten modalitateetako eta, hala dagokionean, bideetako ikasgai espezifiko guztiak eskainiko dituzte. Irakatsiko diren ikasgaiak eta bideak soilik mugatzen ahalko dira ikasle nahikorik hautatu ez dituztean, eta Hezkuntza Departamentuak alde aurretik ezarriko dituen irizpide objektiboetan oinarrituta. Ikastetxe bateko ikasgaien eskaintza mugatuta dagoenean antolaketa arrazoiengatik, Hezkuntza Departamentuak erraztasunak emanen ditu urrutiko hezkuntzaren modalitatean edo beste ikastetxe batzuetan egin ahal izateko.

5. Arteen modalitatearen kasuan, modalitate horretako bideetako baten eskaintza antolaketa arrazoiengatik mugatuta gelditzen bada, aurreko apartatuan araututako bidea osatzen duten ikasgaiak aplikatzen zaiela ulertuko da.

6. Hezkuntza Departamentuak erregelamenduz ezarritakoaren arabera, ikasleak Euskara eta Literatura ikasteaz edo horretan ebaluatua izateaz salbuesten ahalko dira. Beti bermatuko da, halere, bi hizkuntza ofizialetan behar adinako hizkuntza kompetentziaren helburua.

#### **10. artikulua.** *Modalitate guztietarako ikasgai komunak.*

1. Hauek dira lehen mailako ikasgai komunak Batxilergoko modalitate guztietan:

a) Gorputz Hezkuntza.

- b) Filosofia.
- c) Gaztelania eta Literatura I.
- d) Euskara eta Literatura I, hala badagokio.
- e) Atzerriko Hizkuntza I.

2. Bigarren mailako ikasgai komunak:

- a) Espainiako Historia.
- b) Filosofiaren Historia.
- c) Gaztelania eta Literatura II.
- d) Euskara eta Literatura II, hala badagokio.
- e) Atzerriko Hizkuntza II.

**11. artikulua.** *Arteen modalitateko ikasgai espezifikoak.*

1. Arteen modalitatea aukeratzen duten ikasleek bi bide hauetako bat hautatu beharko dute: Arte Plastikoak, Irudia eta Diseinua edo Musika eta Arte Eszenikoak.

2. Lehen mailan, Arte Plastikoen, Irudiaren eta Diseinuaren bideko ikasleek Marrazketa Artistikoa I ikasiko dute, gehi modalitateko beste bi ikasgai, hauen artean aukeratuak:

- a) Ikus-entzunezkoaren Kultura.
- b) Marrazketa Teknikoa Arte Plastikoei eta Diseinuari aplikatua I.
- c) Proiektu Artistikoak.
- d) Bolumena.

3. Bigarren mailan, Arte Plastikoen, Irudiaren eta Diseinuaren bideko ikasleek Marrazketa Artistikoa II ikasiko

dute, gehi modalitateko beste bi ikasgai, hauen artean aukeratuak:

a) Marrazketa Teknikoa Arte Plastikoei eta Diseinuari aplikatua II.

b) Diseinua.

c) Oinarri Artistikoak.

d) Adierazpen Grafiko eta Plastikoko Teknikak.

4. Musikaren eta Arte Eszenikoen bidea aukeratzen duten ikasleek, berriz, Musika Analisisa I edo Arte Eszenikoak I ikasiko dute lehen mailan, bakoitzak aukeratzen duena, gehi modalitateko beste bi ikasgai, hauen artean aukeratuak:

a) Musika Analisisa I.

b) Arte Eszenikoak I.

c) Korua eta Ahots Teknika I.

d) Ikus-entzunezko Kultura.

e) Musika Hizkuntza eta Praktika.

5. Bigarren mailan, Musikaren eta Arte Eszenikoen bideko ikasleek Musika Analisisa II edo Arte Eszenikoak II ikasiko dute, bakoitzak aukeratzen duena, gehi modalitateko beste bi ikasgai, hauen artean aukeratuak:

a) Musika Analisisa II.

b) Arte eszenikoak II.

c) Korua eta Ahots Teknika II.

d) Musikaren eta Dantzaren Historia.

e) Literatura Dramatikoa.

**12. artikulua.** *Zientzien eta Teknologiaren modalitateko ikasgai espezifikoak.*

1. Zientzien eta Teknologiaren modalitatea aukeratzen duten ikasleek Matematika I ikasiko dute lehen mailan, gehi modalitateko beste bi ikasgai, hauen artean aukeratuak:

- a) Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak.
- b) Marrazketa Teknikoa I.
- c) Fisika eta Kimika.
- d) Teknologia eta Ingeniaritza I.

2. Era berean, bigarren mailan, ikasleek Matematika II edo Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika ikasiko dute, bakoitzak aukeratzen duena, gehi modalitateko beste bi ikasgai, hauen artean aukeratuak:

- e) Biologia.
- f) Marrazketa Teknikoa II.
- g) Fisika.
- h) Geologia eta Ingurumen Zientziak.
- i) Kimika.
- j) Teknologia eta Ingeniaritza II.

**13. artikulua.** *Modalitate Orokorren ikasgai espezifikoak.*

1. Modalitate Orokorra aukeratzen duten ikasleek Matematika Orokorra ikasiko dute lehen mailan, gehi beste bi ikasgai, hauen artean aukeratuak:

- a) Ekonomia, Ekintzailletza eta Enpresa jarduera.
- b) Ikastetxean lehen mailan eskaintzen diren modalitateko ikasgai guztiak.

2. Era berean, bigarren mailan, ikasleek Zientzia Orokorrak ikasgaia ikasiko dute, gehi beste bi ikasgai, hauen artean aukeratuak:

a) Mugimendu Kultural eta Artistikoak.

b) Ikastetxean bigarren mailan eskaintzen diren modalitateko ikasgai guztiak.

**14. artikulua.** *Giza eta Gizarte Zientzien modalitatearen ikasgai espezifikoak.*

1. Giza eta Gizarte Zientzien modalitatea aukeratzen duten ikasleek Latina I edo Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika I ikasiko dute lehen mailan, gehi modalitateko beste bi ikasgai, hauen artean aukeratuak:

a) Ekonomia.

b) Grekoa I.

c) Mundu Garaikidearen Historia.

d) Latina I.

e) Literatura Unibertsala.

f) Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika I.

2. Era berean, bigarren mailan, ikasleek Latina II edo Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II ikasiko dute, bakoitzak aukeratzen duena, gehi modalitateko beste bi ikasgai, hauen artean aukeratuak:

a) Enpresa eta Negozio Ereduen Diseinua.

b) Geografia.

c) Grekoa II.

d) Artearen Historia.

e) Latina II.

f) Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II.

**15. artikulua.** *Aukerako ikasgaiak.*

1. Hezkuntza Departamentuak arautuko du aukerako ikasgaien eskaintza, barruan hartuta, gutxienik ere, atzerriko bigarren hizkuntza bat.

2. Ikastetxeek beraiek diseinatutako ikasgaien proposamenak egiten ahalko dituzte, Hezkuntza Departamentuak xedatutakoaren barruan.

16. artikulua. Batxilergoa hiru ikasturtetan antolatzea.

1. Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 32.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Hezkuntza Departamentuak neurriak hartuko ditu posible izan dadin ikasle batek Batxilergoa ohiko araubidean hiru ikasturtean egitea, haren egoera pertsonala, iraunkorra nahiz aldi batekoa, dela-eta komeni denean. Halakoetan, ikasleek Batxilergoko bi mailetako zenbait ikasgai aldi berean ikasteko aukera izanen da.

2. Neurri hori aplikatzen ahalko zaie egoera hauetakoren batean daudenei:

a) Etapa hau Musikako edo Dantzako Lanbide Irakaskuntzekin batera egiten ari direnei.

b) Goi mailako edo errendimendu handiko kirolaria izatea frogatzen dutenei.

c) Hezkuntza laguntzako berariazko premia izateagatik ohiko hezkuntza arretaz bestelakoa behar dutenei.

d) Hezkuntza Departamentuaren iritziz eta hark ezarritako baldintzetan, neurri hau aplikatzea justifikatzen duten beste inguruabar batzuk alegatzen dituztenei.



3. Hezkuntza Departamentuak ezarriko du nola banatuko diren Batxilergoa osatzen duten ikasgaiak, baina beti bermatuko da behar bezala planifikatzen dela lehentasun-ordena dutenen ikasgaien eskaintza, foru dekretu honen IV. eranskinean xedatutakoa betez.

**17. artikulua.** *Funtsezko konpetentziak eta deskriptore operatiboak.*

1. Foru dekretu honen I. eranskinean definitzen dira funtsezko konpetentzia guztiak, bai eta horien eskuratzemaila, etapa amaierarako aurreikusten dena, zehazten duten deskriptore operatiboak ere.

2. Foru dekretu honen ondorioetarako, hauek dira curriculumaren funtsezko konpetentziak:

- a) Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia.
- b) Eleaniztasunerako konpetentzia.
- c) Matematikarako konpetentzia, eta zientzia, teknologia eta ingeniarietarako konpetentzia.
- d) Konpetentzia digitala.
- e) Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.
- f) Herritar konpetentzia.
- g) Ekimenerako konpetentzia.
- h) Kulturaren kontzientzia eta adierazpenerako konpetentzia.

3. Hezkuntza Departamentuak ezarritako curriculumaren eta ikastetxeek beren hezkuntza proiektuetan jasotzen duten curriculum-zehaztapenaren erreferentzia bertan zehazten diren deskriptore operatiboak izanen dira.

**18. artikulua.** *Konpetentzia espezifikoak, metodo pedagogikoak, ebaluazio irizpideak, oinarrizko jakintzak eta ikaskuntza egoerak.*

1. Foru dekretu honen II. eranskinean ikasgai bakoitzaren konpetentzia espezifikoak ezartzen dira, etapakoak, bai eta maila bakoitzerako ezartzen diren ebaluazio irizpideak eta edukiak ere, oinarrizko jakintza gisa emanak.

2. Metodo pedagogikoak ikastetxeek beraiek diseinatu eta ezarriko dituzte etapako ikasmaita bakoitzean, ikasleei prestakuntza integrala ematea xede, zeinak lagunduko baitie beren nortasuna erabat garatzen eta beharrezko trebakuntza izaten etorkizuneko ikasketak aprobetxamenduarekin ikasteko.

3. Funtsezko konpetentziak nahiz konpetentzia espezifikoak bereganatu eta garatzeko, ikaskuntza egoerak diseinatuko ditu irakasle taldeak. Irakasleei beren jarduna errazteko, foru dekretu honen III. eranskinean jaso dira egoera horien diseinurako orientabide batzuk.

**19. artikulua.** *Ebaluazioa.*

1. Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa etengabea izanen da, eta irakasgaien arabera bereiziko da.

2. Ikasturte amaieran, ikasgai bakoitzeko irakasleek erabakiko dute ikasleak helburuak lortu dituen eta dagozkion konpetentzien eskuratze-maila egokia lortu duen.

3. Ikasleek gaingitu gabeko ikasgaien aparteko proba bat egiten ahalko dute, Hezkuntza Departamentuak zehazten dituen egunetan.

4. Hezkuntza Departamentuak eta ikastetxeek bermatuko dute ikasleen eskubidea haien dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez balioetsi eta aitortu

daitezten, eta, horretarako, prozedura egokiak ezarriko dituzte, kontuan hartuko dituztenak etapa honen ebaluazioaren izaera jarraitua eta berezitua, ikasgaien arabera. Alde horretatik, sustatuko da oro har erabil daitezela ebaluazio tresna askotarikoak, malguak eta ikaskuntza egoeretara egokitutakoak, ikasle guztien balorazio objektiboa egin ahal izateko, tresna horiek bermatu beharko baitute, halaber, ebaluazioarekin lotutako prozesuak egiteko baldintzak hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen beharrekin bat datozela.

5. Irakasleek ebaluatuko dute bai ikasleen ikaskuntza, bai irakaskuntza prozesua eta beren irakaslan.

## **20. artikulua.** *Mailaz igotzea.*

1. Ikasleak Batxilergoko lehen ikasmaitatik bigarrenera igaroko dira ikasitako ikasgaiak gaintitzen dituztenean edo gehienez ere bi ikasgaitan ebaluazio negatiboa dutenean. Lehen mailan gaintitu ez dituzten ikasgaitan matrikulatu beharko dute bigarren mailan, eta ikasgai horiek gaintitu gabeko ikasgaitzat hartuko dira. Ikastetxeek errekupeazio jarduerak eta gaintitu gabeko ikasgaien ebaluazioa antolatu beharko dituzte, Hezkuntza Departamentuak ezartzen duen antolaketaren barruan.

2. IV. eranskinean jaso diren bigarren ikasmaitako ikasgaiak gaintitzeko, eranskin horretan berean adierazitako lehen mailako ikasgaiak gaintitu beharko dira, jarraitutasuna dakartelako. Halere, eta Hezkuntza Departamentuak gai horretan ezartzen duenarekin bat, modalitate berean ikasleak bigarren mailako ikasgaietan matrikulatzen ahalko dira lehen mailako kasuan kasuko ikasgaiak ikasi ez badute ere.

3. Bigarren ikasmaila amaitzean ikasgai batzuetan ebaluazio negatiboa duten ikasleak ikasgai horietan matrikulatzen ahalko dira, eta ez dute beharrik izanen gaingiditutako ikasgaiak berriro ikasteko, edo, aitzitik, ikasmaila osoa errepikatzeko aukeraz balia daitezke.

4. Hezkuntza Departamentuak ezarriko du zein diren baldintzak Batxilergoko etapa modalitate edo bide batean hasi duen ikasleak beste modalitate edo bide batean bukatzeko modua izan dezan.

**21. artikulua.** *Batxilergo titulua izatea.*

1. Batxilergoko tituluak egiaztatzen du etapa horretarako ezarritako helburuak lortu direla eta dagozkien gaitasunak eskuratu direla.

2. Batxilergoko titulua lortzeko, Batxilergoko bi ikasmaitetako irakasgai guztietan ebaluazio positiboa lortu beharko da.

3. Salbuespen gisa, irakasle taldeak erabaki dezake irakasgai guztiak, bat izan ezik, gaingiditu dituen ikasle batek Batxilergoko titulua lortzea, baldin eta honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

a) Irakasle taldeak uste izatea ikasleak titulu horri lotutako helburuak eta konpetentziak lortu dituela.

b) Ikasleak etenik gabe huts egin ez izatea, bidezko arrazoirik eman gabe, ikasgaiko eskoletara.

c) Ikaslea probetara aurkeztu izatea eta ebaluaziorako beharrezkoak diren jarduerak eginak izatea, aparteko deialdikoak barne.

d) Etapako ikasgai guztietan lortutako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa bost edo handiagoa izatea. Kasu

horretan, etaparen amaierako kalifikazioa kalkulatzeko, gainditu gabeko irakasgaien lortutako zenbakizko nota hartuko da kontuan.

4. Batxilergoko titulua bakarra izanen da, eta egindako modalitatea eta lortutako batez besteko nota adieraziko dira. Horretarako, ikasitako ikasgai guztien kalifikazioen batezbestekoa kalkulatu da, ehunenera biribilduta. Kalkulu hori egiteko, ikasgai komunak eta aukerakoak hartuko dira kontuan, baita titulua ematen den modalitateko ikasgai espezifikoak eta, hala badagokio, Erljioa ere.

**22. artikulua.** *Beste irakaskuntza batzuetatik Batxilergo titulua lortzea.*

1. Lanbide Heziketako teknikari titulua duten ikasleek Batxilergoko titulua eskuratzen ahalko dute modalitate Orokorrean, ikasgai komunak gaindituta.

2. Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikari titulua duten ikasleek Batxilergoko titulua lortzen ahalko dute Arteen modalitatean, ikasgai komunak gaindituta.

3. Musikako edo Dantzako Lanbide Irakaskuntzak gainditu eta ikasgai komunak ere gainditu dituztenek lortzen ahalko dute Batxilergo titulua Arteen modalitatean.

4. Ikasle horien Batxilergoko tituluan ageri den nota ponderazio hau eginez aterako da:

a) Batxilergoan ikasitako ikasgai komunetan lortutako kalifikazioen batezbestekoaren % 60.

b) Titulua lortzeko erabiltzen diren irakaskuntzetan lortutako batez besteko notaren % 40, irakaskuntza horiek antolatzeke errege dekretuetan ezarritakoaren arabera kalkulatu.

### **23. artikulua.** *Tutoretza eta orientazioa.*

1. Batxilergoan, orientazioak eta tutoretza lanak ikasleen hezkuntza prozesuan lagunduko dute, bakarkakoan nahiz kolektiboan.

2. Hezkuntza Departamentuari dagokio behar diren neurriak sustatzea etapa hau antolatzeko funtsezko elementuak hauek izan daitezen: ikasleen tutoretza pertsonala, hezkuntza, psikopedagogia eta lanbide orientazioa, eta haien etorkizuneko prestakuntza ibilbidearen prestaketa.

3. Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarria sustatzeko, genero-ikuspegia txertatuko da hezkuntza eta lanbide orientazioaren arloan.

4. Ikastetxeek informazioa eta orientazioa eman beharko diete ikasleei, aukera ditzaten 9., 11., 12., 13., 14. eta 15. artikuluetan aipatzen diren modalitate, bide eta ikasgaietatik beren interesetarako eta ondorengo prestakuntza orientaziorako egokienak diren horiek.

### **24. artikulua.** *Banako desberdintasunei erantzutea.*

1. Hezkuntza Departamentuak behar diren bitartekoak jarriko ditu ohiko arretaz bestelakoa behar duten ikasleek etaparako ezarritako helburuak lor ditzaten eta dagozkien kompetentziak eskura ditzaten. Ikasle horiei eman beharreko arreta normalizazio eta inklusio printzipioek gidatuko dute.

2. Aurrekoarekin batera, ebaluazioa egiteko baldintzak egokitu beharko dira hezkuntza laguntzaren berariazko premia duten ikasleen beharretara eta, horretarako, neurririk egokienak ezarriko dira.

3. Hezkuntza Departamentuak hezkuntza ekitatea eta inklusioa, aukera berdintasuna eta desgaitasuna duten

ikasleen diskriminaziorik eza sustatuko ditu. Horretarako, malgutzeko neurriak eta irisgarritasunaren eta diseinu unibertsalaren arloko alternatiba metodologikoak ezarriko dira, ikasle horiek aukera berdintasunean oinarritutako kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera izan dezaten.

4. Era berean, ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleentzako hezkuntza laguntzako neurriak ezarriko ditu. Bereziki, ikasle horientzat malgutzeko neurriak eta alternatiba metodologikoak ezarriko dira atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan eta ebaluazioan. Egokitzapen hauek ez dira inola ere kontuan hartuko lortutako kalifikazioak jaisteko.

5. Hezkuntza Departamentuak ezarriko ditu adimen gaitasun handiko ikasleak eskolatzeko baldintzak, ezarritako protokoloaren arabera halakotzat identifikatu ondoren.

6. Inklusioa sendotzeko, Hezkuntza Departamentuak zeinu-hizkuntza espainiarrak sartzen ahalko ditu etapa honetan.

## **25. artikulua.** *Ikastetxeen autonomia.*

1. Hezkuntza Departamentuak erraztasunak emanen dizkie ikastetxeei pedagogia, antolaketa eta kudeaketa arloko autonomia balia dezaten, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren V. tituluaren II. kapituluaren eta hura garatzen duten arauetan jasotako baldintzetan. Irakasleen talde-lana ere bultzatuko du, eta irakasleen ikerketa-jarduera, irakaskuntzan oinarrituta.

2. Halaber, lagunduko du ikastetxeek curriculuma garatzen eta egokitzen, irakaskuntzako programaziorako eta material didaktikoetarako eredu irekiak egin daitezen sustatuko du, horien bidez ikasleen eta irakasleen beharrei

erantzuteko, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioei men eginez ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza errealitatera egokitu dezan.

3. Ikastetxeek curriculuma garatu eta osatuko dute, bakoitzak dituen ikasleen ezaugarrietara eta hezkuntza errealitatera egokituta. Ikastetxeek, halaber, ikasleen gurasoekin edo legezko tutoreekin hezkuntza konpromisoak sustatuko dituzte, edo ikasleekin beraiekin adin nagusikoak direnean, non jasoko baita hezkuntza komunitateko kideek hitz ematen dutela ikasleen aurrerapen akademikoari laguntzeko zenbait jarduera betetzeko, eta zein diren jarduera horiek.

4. Ikastetxeek, beren autonomia baliatuta, hainbat alderdi ezartzen ahalko dituzte: esperimentazioak, berrikuntza pedagogikoak, hezkuntza programak, lan planak, antolatze moduak, elkarbizitza arauak, eskola-egutegia edo ikasgaien eskola-ordutegia zabaltzea; betiere Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen baldintzetan egingen dute, eta aplikatzekoa den araudiak, baita lanari buruzkoak ere, ahalbidetzen duen neurrian. Edonola ere, horrek ez du inolako diskriminaziorik ekarriko eta gurasoei edo legezko tutoreei ez zaie ekarpenik egin beharra ezarriko, ezta Hezkuntza Departamentuarentzako exijentziarik ere.

**26. artikulua.** *Gurasoen, legezko tutoreen eta adin nagusiko ikasleen parte-hartzea eta informazioa jasotzeko eskubidea.*

1. Ikasleak adingabeak direnean, gurasoek eta legezko tutoreek beren seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza prozesuaren bilakaeran parte hartu beharko dute eta hura babestu, ikastetxeek ikasleen aurrerapena errazteko hartzen dituzten laguntza edo errefortzu neurrietan lagunduta.



2. Horrez gain, eskubidea izanen dute ikasleen ebaluazioari eta mailaz igotzeari buruzko erabakiak ezagutzeko, bai eta ikasleei egiten zaizkien ebaluazioen agiri ofizialak, probak eta agiriak eskuratzeko ere, kasuan kasuko ikasleari dagokion zatian, horrek galarazi gabe Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta datu pertsonalen babesaren arloko araudi aplikagarrian ezarritako bermeak errespetatzea.

3. Aurreko apartatuan aipatzen diren eskubideak adin nagusiko ikasleek ere badituzte, horrek galarazi gabe haien gurasoek edo legezko tutoreek eskubide horiek erabiltzea, interes legitimoa dutela justifikatzen badute.

**27. artikulua.** *Ebaluazio agiriak eta txostenak.*

1. Batxilergoan, ebaluazio agiri ofizialak honakoak dira: ebaluazio aktak, ikasketa espedientea, ikasketen historia eta, hala dagokionean, lekualdatzeagatiko txosten pertsonala.

2. Ikasketen historia eta, hala dagokionean, lekualdatzeagatiko txosten pertsonala oinarrizko agiriak dira ikasleen mugikortasuna bermatzeko Espainiako lurralde guztian.

3. Ebaluazio agiri ofizialetan foru dekretu honen aipamena jaso beharko da. Agiriek Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo izan behar dutenean eragina, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiko zaio.

## **28. artikulua.** *Ebaluazio aktak.*

1. Ebaluazio aktak ikasmaila bakoitzerako eginen dira, eta eskolaldia bukatzean itxiko dira, deialdi arrunta egin ondoren, eta aparteko deialdiaren ondotik. Ikastaldea osatzen duten ikasleen izen-zerrenda jasoko dute, ikasgaien ebaluazioaren emaitzekin eta ikasmailaz igotzeaz edo maila berean jarraitzeaz hartutako erabakiekin batera.

2. Akta horietan jasotako ebaluazioaren emaitzak zerotik hamarrera bitarteko zenbakizko kalifikazioen bidez adieraziko dira, dezimalik gabe, eta bostetik beherako kalifikazioak negatibotzat joko dira. Ikasleak ez badira aparteko probetara aurkezten, ez aurkeztutzat joko dira (EA).

3. Bigarren mailako aktetan, gainera, aurreko mailan gaingitu gabeko ikasgaiak dituzten ikasleak agertuko dira, eta Batxilergo titulua emateko proposamena ere jasoko da, etapako batez besteko notarekin batera. Nota hori foru dekretu honen 21.4 artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu da. Maila horretan, eskolaldi arrunta bukatuta eta aparteko probaren deialdia eginda gaingitu gabe dauden ikasgaien ebaluazio aktak eginen dira.

4. Foru dekretu honen bigarren xedapen gehigarriaren bosgarren apartatuan ezarritakoa aplikatzeko, batez besteko nota normalizatu bat ere jasoko da, Erljioa ikasgaiaren kalifikazioa kontuan hartu gabe kalkulatu.

5. Hezkuntza Departamentuak prozedurak ezartzen ahalko ditu etapa amaieran errendimendu akademiko bikaina duten ikasleen espedienteari Ohorezko Aipamena edo Ohorezko Matrikula emateko.

6. Ebaluazio aktak taldeko irakasle guztiek izenpetuko dituzte eta ikastetxeko zuzendariak ontzat eman beharko ditu.

**29. artikulua.** *Ikasketa espedientea.*

1. Ikasketa espedientearen bilduko dira ikastetxearen identifikazio datuak, ikaslearenak eta ikaslearen ebaluazio prozesuari buruzko informazioa. Etaparen hasieran irekiko da, edo, hala badagokio, ikastetxean sartzeko unean, eta, gutxienez, honako hauek jasoko ditu: deialdietan ikasgaiaren ebaluazioan izandako emaitzak, mailaz igotzeko eta titulazioa lortzeko erabakiak, eta, halakorik balego, ikaslearentzat hartutako hezkuntza laguntzako neurriak edo egokitzapenak. Era berean, etapan lortutako batez besteko nota jasoko da, bai eta foru dekretu honen 28.4 artikuluan aipatutako batez besteko nota normalizatua ere.

2. Ikasketa espedienteen zaintza eta artxiboa kasuan kasuko ikasketak egin diren ikastetxeei dagozkie, eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak gainbegiratu ditu.

**30. artikulua.** *Ikasketen historia.*

1. Ikasketen historia ikastetxeko zuzendariak ontzat eman beharko du, eta egindako ikasketak egiaztatzeko balioa. Gutxienez ere honakoak jasoko ditu: ikaslearen identifikazio datuak, eskolatze urteetako bakoitzean ikasitako ikasgaiak, aplikatutako hezkuntza laguntzako neurriak, ebaluazioaren emaitzak deialdi guztietan, mailaz igotzeaz eta maila berean jarraitzeaz hartutako erabakiak, Batxilergoko batez besteko nota eta batez besteko nota normalizatua, ikastetxe aldaketei buruzko informazioa eta aipatutako gertaera guztien datak.

2. Etapa amaitu ondoren, Batxilergoko ikasketa historia ikasleari emanen zaio, edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoei edo legezko tutoreei.

**31. artikulua.** *Lekualdatzeagatiko txosten pertsonala.*

1. Ikaslea etapa bukatu aurretik beste ikastetxe batera mugituz gero, jatorrizko ikastetxeak destinokora bidali behar du lekualdatzeagatiko txosten pertsonala, destinokoak eskatuta, ikasketen historiaren kopia batekin batera. Hura jasotzen duen ikastetxeak ikaslearen ikasketa espedientea irekiko du. Matrikulazio berria behin betiko bihurtuko da behin ikasketen historiaren kopia jaso ondoren.

2. Lekualdatzeagatiko txosten pertsonalean jasoko dira egindako ebaluazioen emaitzak, laguntza neurriak edo egokitzapenak, aplikatu baldin badira, eta ikaslearen aurrerapen orokorrari buruz egokitzen jotzen diren ohar guztiak.

**32. artikulua.** *Benetakotasuna, segurtasuna eta konfidentzialtasuna.*

1. Hezkuntza Departamentuak prozedura egokiak ezarriko ditu ebaluazio agiri ofizialen benetakotasuna, horietan jasotako datuen osotasuna eta haien gainbegiratzea eta zaintza bermatzeko, bai eta gorde eta lekualdatzeko ere, ikastetxea desagertu edo azkentzen bada.

2. Ikaslearen datu pertsonalak lortzeari, datu horiek ikastetxe batetik bestera lagatzeari eta datuen segurtasun eta konfidentzialtasunari dagokienez, datu pertsonalak babestearen arloan indarra duten arauetan ezarritakoari jarraikiz jokatu da, eta betiere Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

3. Ebaluazio agiri ofizialak eta horiek baliozkotzeko prozedurak, aurreko apartatuetan deskribatzen direnak, bitarteko elektronikoa, informatiko edo telematikoekin egindako beste agiri baliokide batzuekin ordeztu ahalko dira, baldin eta ziurtatzen badira haien benetakotasuna, osotasuna eta kontserbazioa, eta betetzen badira abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta azken hori garatzen duen araudiak ezarritako bermeak eta baldintzak.

4. Ikaslearen espediente elektronikoa, gutxienez ere, ebaluazio agiri ofizialetan dauden datuek osatuko dute, eta bete beharko du Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuan ezarritakoa.

#### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

##### **Lehen xedapen gehigarria. Ezarpena eta ordutegia.**

Hezkuntza Departamentuak foru agindu baten bidez arautuko ditu irakaskuntza hauen ezarpena eta ordutegia.

##### **Bigarren xedapen gehigarria. Erljio irakaskuntza.**

1. Erljio irakaskuntza sartuko da Batxilergoan, Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituen apirilaren 5eko 243/2022 Errege Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz; izan ere, errege dekretu horrek garatzen du Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarrian jasotakoa.

2. Hezkuntza Departamentuak bermatuko du ikasturtearen hasieran adin nagusiko ikasleen eta ikasleen gurasoek edo tutoreek adierazi ahal izatea zer nahi duten, Erljio irakaskuntza jasotzea ala ez.

3. Erlijio katolikoaren irakaskuntzaren curriculumak eta Estatu espainiarrarekin hezkuntza arlorako lankidetzak hitzarmenak sinatu dituzten gainerako konfesioen curriculumak Elizaren hierarkiak eta erlijio bakoitzeko agintariek ezarriko dituzte, hurrenez hurren.

4. Erlijio katolikoaren irakaskuntzaren ebaluazioak Batxilergoko gainerako ikasgaietakoak egiten diren bezalaxe egiten da eta haiek dituzten ondorio berdinak izanen ditu. Gainerako erlijio konfesioen irakaskuntzaren ebaluazioak Estatuarekin izenpetutako hezkuntza arloko lankidetzak hitzarmenetan ezarritakoa beteko du.

5. Berdintasunaren printzipioa eta konkurrentzia librea bermatu beharrez, Erlijio irakaskuntzaren ebaluazioan lortutako kalifikazioak ez dira kontuan hartuko beste ikasketa batzuetan sartzeko, ez eta bekak eta ikasteko laguntzak lortzeko deialdietan ere, horietan ikasketa espedienteen arteko konkurrentzia egin behar denean.

**Hirugarren xedapen gehigarria. Atzerriko hizkuntzetan egiten diren Espainiako hezkuntza sistemako ikasketak.**

Hezkuntza Departamentuak baimentzen ahalko du curriculumaren ikasgaietako zati bat atzerriko hizkuntzetan ikastea, baina horrek ez ditu aldatuko foru dekretu honetan arautzen diren curriculumaren oinarritzko alderdiak. Halakoetan, ahalegina egiten da etapan zehar ikasleek ikasgaien berezko terminologia beregana dezaten bai atzerriko hizkuntzan bai gaztelaniaz edo euskaraz, hala dagokionean.

**Laugarren xedapen gehigarria. Helduen Hezkuntza.**

1. Hezkuntza Departamentuari dagokio behar diren neurriak hartzea helduek ikasketa hauen eskaintza

berariazkoa izan dezaten, haien ezaugarrien arabera antolatua.

2. Era berean, Hezkuntza Departamentuari dagokio urrutiko hezkuntzaren eskaintza publikoa antolatzea, helduen etengabeko prestakuntzari erantzun egokia emateko. Eskaintza horretan informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera jasoko da.

3. Batxilergoko eskaintza helduen hezkuntza arautzen duen malgutasun printzipiora egokitzeko, Hezkuntza Departamentuak helduentzat egiten duen eskaintzan ez da aplikatuko foru dekretu honen 20. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoa.

4. Hezkuntza Departamentuak helduentzat ezarritako eskaintza espezifikoaren esparruan Batxilergoa egiten duten ikasleek titulua eskuratuko dute baldin eta ebaluazio positiboa lortu badute Batxilergoko bi ikasmailetako ikasgai guztietan, edo guztietan, batean izan ezik. Azken kasu horretan, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Irakasle taldeak uste izatea ikasleak titulu horri lotutako helburuak eta konpetentziak lortu dituela.

b) Ikasleak ikasgaia ez uztea, Hezkuntza Departamentuak xedatutakoaren barruan ikastetxeek ezarritako irizpideekin bat.

c) Ikaslea proba guztietara aurkeztu izatea eta ebaluaziorako beharrezkoak diren jarduera guztiak eginak izatea, aparteko deialdikoak barne.

d) Etapako ikasgai guztietan lortutako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa bost edo handiagoa izatea.

5. Ikasketa hauek egiten ari diren eta foru dekretu honen 22. artikuluan aipatzen diren tituluetakoren bat duten

ikasleek Batxilergoko titulua lortzen ahalko dute artikulua horretan bertan aurreikusitako prozeduraren bidez.

**Bosgarren xedapen gehigarria. Batxilergoko modalitate berriak lortzea.**

Batxilergoko titulua modalitate zehatz batean lortu dutenek beste titulu bat lortzen ahalko dute Batxilergoko beste modalitateetako edozeinetan, Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen baldintzetan, gainditzeko badituzte aukeratutako modalitaterako, foru dekretu honetan ezarritakoarekin araberako, lehen eta bigarren mailatan beharrezkoak diren modalitateko ikasgaiak.

**Seigarren xedapen gehigarria. Ikasketen batera egitea.**

Foru dekretu honetan ezarritakoaren esparruan, Hezkuntza Departamentuak aukera emanen du Arteetako Lanbide Irakaskuntzak eta Bigarren Hezkuntza batera egiteko. Horretarako, ikasketak antolatzeko neurri egokiak hartzen ahalko dira; besteak beste, baliozkotzeak eta ikastetxe integratuak sortzea.

#### **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**Lehen xedapen iragankorra. Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko irakaskuntzen curriculumak ezartzen duen apirilaren 22ko 25/2015 Foru Dekretuaren aplikagarritasuna 2022-2023 ikasturtean.**

1. 2022-2023 ikasturtean, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko irakaskuntzen curriculumak ezartzen duen apirilaren 22ko 25/2015 Foru Dekretuaren arabera araututako irakaskuntzak Batxilergoko bigarren mailan aplikatuko dira.

2. 2022-2023 ikasturtean, apirilaren 22ko 25/2015 Foru Dekretuaren eranskinetan jasota dauden irakaskuntza-



estandar ebaluagarriak orientagarriak baino ez dira izanen Batxilergoko bigarren mailarako.

**Bigarren xedapen iragankorra. 2022-23 ikasturteko ebaluazioa.**

2022-2023 ikasturtean, Batxilergoko bigarren mailan, Lehen Hezkuntzako ebaluazioa eta mailaz igotzea, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ebaluazioa, mailaz igotzea eta titulazioa arautzen dituen azaroaren 16ko 984/2021 Errege Dekretuaren I. eta V. kapituluetan xedatutakoa aplikatuko da.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEAK**

**Xedapen indargabetzaile bakarra.**

1. Indargabetzen da 25/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena.

2. Maila bereko edo apalagoko arauetan, indargabeturik dago foru dekretu honetan ezarritakoaren aurka doan oro.

**AZKEN XEDAPENAK**

**Azken xedapenetako lehena. Ezarpenerako egutegia.**

Foru dekretu honetan xedatutakoa 2022-2023 ikasturtean ezarriko da Batxilergoko lehen mailarako, eta 2023-2024 ikasturtean bigarren mailarako.

**Azken xedapenetako bigarrena. Arau garapena.**

Ahalmena ematen zaio Hezkuntzako kontseilariari foru dekretu honetan ezarritakoa betearazi eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.**

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.